

Ezagutu, hausnartu eta jarduteko

'Bizikidetzarako memoria' erakusketa ondu du Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak; hilaren 30era arte ikus dezakete herritarrek / 6

TXINTXARRI

Hurrengo urratsak marrazten

Erreferendumaren aldeko sinadurak biltzeko ekitaldiak hasi ditu Hamaika Gara taldeak; hitzaldia eman du Mario Zubiagak / 3

Taberna eta jatetxeetan eskatu eta kontsumitzen ez diren jakien xahutzea ekiditeko kanpaina / 2

Maialen Aristegi kantautoreak Gaztea irratiko Maketa Lehiaketan parte hartu du / 4

Azken Ostirala egin, eta urriaren 23ko manifestazioko parte hartzea "oso positiboki" baloratu du Sarek / 5

Alex Saleta errugbi jokalaria 20 urtez azpiko Europako txapelketa jokatu du Coimbran / 10

Ostadar Atletismo Eskolako kideek txapelketa garaia hasi dute, urte eta erdiko etenaren ostean / 11

Dagoeneko ez daudenak gogoratu dituzte herritarrek Illarraltzuetan, Domu Santu Egunean / 16

BLACK FRIDAY

%20ko deskontua
betaurreko graduatuetan
+ 2. betaurreko osoa opari



Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

Kale Nagusia, 15
943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
50 urte zuen ikusmena zaintzen

www.multiópticas.com   

Kontsumitzen ez diren jakien xahutzea ekiditeko

Gourmet Bag 3.0 izena du Gipuzkoako Foru Aldundia-k, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin eta Impact Hub Donostia-rekin batera sustatutako proiektuak, eta Lasarte-Oriako bost establezimenduk bat egin dute egitasmoaren hirugarren edizioarekin

Txintxarri

Jatetxeetan eskatu eta kontsumitzen ez diren elikagaien xahutzea saihesteko Gourmet Bag 3.0 proiektuan parte hartuko dute Lasarte-Oriako hainbat jatetxe eta tabernak. Horrela jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiak egitasmoaren hirugarren edizioaren aurkezpen oharrean. 2018. urtean abiatu zuten lehenengoz egitasmo pilotua. Orduan, Donostiako establezimenduek soilik izan zuten parte hartzeko aukera. Gerora (iaz), bigarren edizio batean Gipuzkoako herri ezberdinetako 25 taberna eta jatetxetara zabaldu zen, eta, orain,

hirugarrenean, Gipuzkoako beste hamar udalerritako zenbait establezimenduk parte hartuko dute. Horien artean daude Lasarte-Oriako bost taberna eta jatetxe: Abend, Avenida taberna, Formula Route 33, Lasarte taberna eta Oria Txiki. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailak sustatutako ekimena da, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin eta Impact Hub Donostiarekin lankidetzan, eta elikagaien xahuketa murrizteko erronkaren aurrean sortu dute.

2.000 ontzi ekologiko banatuko dituzte egitasmoarekin bat egin duten establezimenduetan, eta horien bitartez, soberako anoak

etxera eramateko aukera izango dute bezeroek. Betiere, noski, hala egin nahi badute. Jakinarazi dute, aipatu ontzi horiek birziklatutako paperarekin egindakoak izateaz gain, mikrouhin labearekin bateragarriak direla. Halaber, konpostagarriak dira, hortaz, erabiltzaileek edukiontzi marroira bota ahal izango dituzte.

Klima aldaketaren aurka

Elikagaiak alferrik galtzearen aurkako konpromisoa, klima aldaketaren aurkako borrokan lan ildo garrantzitsua dela nabarmendu du Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak:



Avenida tabernak bat egin du Gourmet Bag 3.0 kanpainarekin. TXINTXARRI

"Aurre egin behar diogu jakien xahutzeari, lehen mailako arazoa baita. Kalkuluen arabera, Gipuzkoan, urtero 123.000 tona jangai hondatuko dira (%23a alferrik galduko direnak eta %77 galerak)". Horri irtenbide emateko asmoz sortu da Gourmet Bag eta lurraldeko hiri hondakinen kudeaketari, ekonomia zirkularri eta hondakinen hierarkiari buruzko plangintzarekin bat eginez. Aipatu kanpainak, kontsumitzaileei

zuzendutako kontzientziario izaera bat ere badu. Ontziaz gain, informazioa ere emango zaie jatetxeetako bezeroei, proiektura atxiki diren establezimenduen berri izan dezaten.

Ekimen irekia da Gourmet Bag, hau da, proiektuarekiko interesa duten establezimendu guztiek parte har dezakete. Horretarako, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearekin edo Impact Hub Donostiarekin jarri behar dute harremanetan.

Kontzientzia sortzeko eta hausnartzeko saioak

Hiri hondakinak birziklatzearen garrantzia azpimarratzeko eta lasarteoriatarrek kontzientziatzeko asmoz, Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz enpresak lau saio ireki prestatu dituzte. Izena emateko azken eguna hilaren 12a izango da, ostirala

Txintxarri

Birziklatzearen erronka lelotzat hartuta, Lasarte-Oriako Udalak eta Artelatz enpresak kanpaina bat abiatu dute, hiri hondakinak birziklatzearen garrantzia nabarmentzeko eta herritarren artean kontzientzia sortzeko. Zortzi tailer prestatu dituzte: erdiak itxiak izango dira, adin-tarte jakin batzuetako pertsonekin egitekoak, eta irekiak beste lauak, lasarteoriatar guztientzat. Azken horiek hilaren 15etik 24ra egingo dituzte, herriko zenbait gunetan, euskaraz zein gaztelaniaz. Izena emateko azken eguna 12a izango da, ostiralarekin, udaleko Partehartze zinegotzi Nagore



Ezker-eskuin: Nagore Duran, Agustin Valdivia eta Maite Zaldibar. TXINTXARRI

Duranek aditzera eman duenez. Parte hartu nahi dutenek 943-67 06 37 telefono zenbakira hots egin beharko dute. Bestela, herrian barrena antolatzaileek jarri dituzten kartelak aurkitu, eta bertako QR kodeak eskaneatu dituzakete sakelako telefonoekin.

Ohitura aldaketa

Agustin Valdivia alkateak adierazi du herritarren ohiturak aldatzea dela egitasmoaren helburuetako bat, "Lasarte-Oriako birziklatze tasa altuagoa izan dadin [San Marko mankomunitatearen datuen arabera, 2020an hondakinen erdiak baino gutxiago jaso ziren gaika: %46,5]". Horrez gain, hondakinak birziklatzerakoan lasarteoriatarrek dituzten zailtasunen berri ere izan nahi dute antolatzaileek.

Artelatzeko kide Maitane Zaldibar-ek nabarmendu du "herritar guztien ardura" dela zaborra ongi biltzea gaika: "Saioen bidez, norberak egin dezakeena azpimarratuko dugu, indibidualki zein kolektiboki, eta gaiari buruzko mito batzuk apurtzen saiatuko gara". Tailerrak ez ezik, Urnietan dagoen birziklatze plantara pare

Tailerrak Lasarte-Orian

Udalak eta Artelatz-ek lau tailer ireki prestatu dituzte lasarteoriatarrentzat:

- **Azaroak 15, astelehena, 18:30ean:** Antonio Mercero gunean. Euskaraz.
- **Azaroak 22, astelehena, 18:30ean:** Manuel Lekuona Kultur Etxean. Gaztelaniaz.
- **Azaroak 23, asteartea, 18:00etan:** Mirentxun. Euskaraz.
- **Azaroak 24, asteazkena, 18:30ean:** Manuel Lekuona Kultur Etxean. Gaztelaniaz.

bat bisita antolatu nahi dituzte, baina zain daude, gaur-gaurkoz publikoari itxita dagoelako. Bestela, bideo batzuk prestatuko dituzte eta Manuel Lekuona Kultur Etxean proiektatu.

Bide luze baten hurrengo urratsak

'Inoiz baino gehiago, Gure Esku' hitzaldia eman du Mario Zubiaga irakasle, politologo eta Gure Esku dinamikako zuzendaritza kontseiluko kideak. Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa Lasarte-Orian hauspotzeko jardueretako bat izan da; dozenaka herritar bertaratu dira

Txintxarri

Herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarron garaia da. Horiek dira, sortu zenetik, Gure Esku dinamika lau haizetarTa zabaldu dituen leloak, eta COVID-19aren pandemiak eragindako osasun larrialdia atzean geratu denean berrartu dituenak. Lelo horiek esan nahi dutenaren "izpiritua berpizteko ueña" dela iritzia, Mario Zubiaga irakasle, politologo eta Gure Eskuko zuzendaritza kontseiluko kideak nabarmendu du lelo horiek "pil-pilean" daudela, "indar betean", eta "inoiz baino gehiago" heldu behar zaiela. Ez alferrik, Oriarte institutuko Larrekoetxe eraikinean eman duen hitzaldiaren izenburua *Inoiz baino gehiago, Gure Esku* izan da. Herri egitismo hori gaur-gaurkoz non kokatzen den azaldu die ikus-entzuleei, eta erabakitze eskubidearen aldarrikapenak Euskal Herrian eta nazioartean zer indar duten eta zeintzuk aukera sor ditzakeen aztertu –Eskozia eta Katalunia izan ditu hizpide batez ere–.

"Erabakitze eskubidea lege bihurtzea da jokoan dagoena", azpimarratu du Zubiagak. Zentzu horretan, "bidea eta borroka luzeak" izango direla adierazi du. "Helburu nagusia



Herritar ugari bertaratu dira Mario Zubiagaren hitzaldia entzuterako. TXINTXARRI

erreferendum adostu bat egitea da, horregatik izan ditugu kontuan erakundeak eta alderdiak, nahiz eta horien gehiegizko gidaritzak ez den ona". Herri mugimenduek prozesu horren ardatz garrantzitsua izan behar dutela iritzita, Gure Eskuren erronketako bat euskal gizarte berrakibatzea izango da. Norabide horretan, abendura bitartean erreferendumaren aldeko atxikimenduak bilduko ditu, herriz herri. Ondoren, Eusko Legebiltzarrari eskaera eskubide bat egingo dio, sinadura guztiak aurkeztuta, erabakitze

eskubidea "era garbi batean" arautu dezaten. Epe ertainean, 2022ko uztailean, Euskal Herria eta Kataluniaren artean jardura sinbolikoa egingo dute: Pirinioetako Bidea.

Ekitaldi nagusia, kultur etxean

Lasarte-Oriako Hamaika Gara taldeak ekitaldi batzuk antolatu ditu erreferendumaren aldeko sinadura bilketa hauspotzeko. Zubiagaren solasaldia izan da horietako bat. Atxikimenduak jasotzeko ekitaldi nagusia hilaren 21ean egingo dute, igandearekin, kultur etxean, 12:00etan.

Batukada taldean parte hartzeko deia egin du Dinbi Banda-k

"Zuen zain gaude". Mezu labur baina argi horrekin, herritarrak batukada taldean izena ematera gonbidatu ditu Dinbi Banda-k. Parte hartu nahi dutenek dinbibanda@gmail.com helbidera idatzi beharko dute, edo bestela, sare sozialetara. Ostiraletan entseatzeko dute, Sasoeta LH ikastetxean, 18:00etatik 20:00etara.

Haurren liburutegia berrireki du Lasarte-Oriako Udalak

Udal liburutegiko haurren gunera joan ahalko dute familiek, Lasarte-Oriako Udalak berrireki egin baitu eremu hori, azaroaren 2an, "orain arteko denbora eta edukiera mugarik gabe". Dena den, bertara joaten direnek musukoa jantzita eraman beharko dute uneoro, eta ezingo dira 30 pertsona baino gehiago egon elkarrekin.

Udaletxean izapideak egiteko ez da aurrez hitzordua hartu behar

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du dagoeneko ez dela beharrezkoa aurrez hitzordua hartzea udaletxean izapideak egiteko. Edonola ere, gogorarazi die herritarrei "derrigorrezkoa" dela maskara erabiltzea eta segurtasun neurriak errespetatzea, edukierari dagozkionak indargabetuta geratu badira ere.



NEURE KABUZ
JULEN BASTERRA

Nondik hasi...

Kaixo denoi,

Berria naiz hemen eta hitz batzuk idaztera nator, norbaitek irakur ditzan. Zerbait interesgarria idazteko asmotan onartu nuen TXINTXARRI-ko gonbite hau. Gaurkoan, ordea, ez dakit zer den garrantzitsua, dena kontrolpean nuela uste nuenean mundua jausi baizitzaidan berritro. Astebete lorik ia egin gabe eman eta gero, lan kontratua etetea erabaki nuen duela hilabete pasatxo. Azken egunak, ordea, duela hilabete gertatu zitzaizkidanak paperera eramaten igaro ditut. Niretzako bakarrik ari naiz idazten, nire senak gidatuta. Badakizue, berritro altxatzearen legeak aplikatzen dira beti halako egoeretan. Ez dakit lege hauek nork idatzi zituen, baina jainko-jainkosak sortu baina aurretiko garaikoak dira. Giza konstituzioaren parte.

Nondik hasi? Galdetzen diot neure buruari. Dagoeneko, erantzuna badakit. Zorionez, ez da erortzen naizen lehen aldia. Alabaina, ez da erraza altxatzea eta itzultzea kanpoko kaosari begira galdu zarenean. Egiak, denbora bat behar duzu urak berriz ere baretu daitezten. Urak harrotzearen eta baretzearen prozesuek nire lagun baten hitzak dakarzikidate gogora. Hark zingira bat du aipatzen:

"Noizbait lortu baduzu zure gogamenaren zingira laua bezain gardena zedarritzea, ez jaurti harri koskorrik bertara".

Zingira laua eta gardena mantentzea, horixe adiskidearen aholkua. Ezagutzen nautenek badakite Lao Zi dela nire pentsalaririk kutunena eta Daoaren irakaskuntzak jarraitzen ahalegintzen naizela, neure neurrian bada ere. Esaldia berea da, nire idazkeraren iragazkiaz pixka bat moldatua izan den arren. Duen mamiak hemen konpartitzera behartzen nau. Izan ere, Lao Zik bizitza on bat nola bizitzen den jakiteko baliagarriak diren tankera honetako jakituria pilula asko oparitzen dizkigu, norberak dagoen lekutik interpretatzen eta aplikatzen dituenak. Azken hiru urteotan, bolada txar zein onetan, gustu handiz irakurri eta entzun izan ditut Lao Ziren esanak. Batasuna ematen didan iturritzat daukat gizona.

Bada, "irakasle agurgarriari" jaramonik egin gabe, nork eta nik neuk, inork ni behartu gabe, hainbeste daoismo pilula kontsumitu eta gero, hartu eta jaurti diodan harri koskorra nahiko bare nuen zingira propioari. Arraioa! Harrikada galanta nirea! Uhin ugari zirkuluan mugagaberuntz zabaltzen hasiak dira zingiran. Harri koskorra, berriz, halabeharrenez legez beheruntz doa azkar. Harriak zingira hondoa jo du, noski. Eta, une horretan, lokatz partikulak zabaldu dira. Dagoeneko, zingira gainean zein hondoa ez da ezer ikusten, ur uherretan murgildu baikara. Beste behin, argitasuna itzul dadin, itxarotea eta ezer ez egitea tokatzen da... Gezurra badirudi ere, hauxe da azkenean lanik zailena, munduagatik ezer ez egitea. Lagunaren hitzetan:

"Munduaren alde ezer ez egitea, horra ikaskuntzaren hasiera iragartzen duen danborraren hotsa".

Ai ene! Izango al naiz inoiz hasiera honi heltzeko gai? Ez dakit, baina, gutxienez, bidean agertuko zaizkidan harri koskorak zingirara ez jaurtitzearrekin konformatuko naiz.

GORKA LASA | ASIER ODRIÓZOLA | GORKA ALVAREZ | JEXUX ARTETXE | MAITANE REBE | **JULEN BASTERRA** | NEREA SEGURA | LIERNI REKONDO | AIZPEA AMAS

'Bi ahotsetara' abestia, Maketa Lehiaketan

Maialen Aristegi Letamendia lasarteoriatarak Gaztea irratia- ren Maketa Lehiaketan parte hartu du. Hiru abestirekin aurkeztu du bere hautagaitza eta horietatik, 'Bi ahotsetara' kantuarekin sartu da finalista izateko norgehiagokan

Txintxarri

"Aspalditik" zuen Gaztearen Maketa Lehiaketan parte hartzeko gogoia Maialen Aristegi Letamendia lasarteoriatarak. Aurten animatu da, ordea; "probatzearen" aurkeztu du bere hautagaitza. Musikaz bizitzea da kantautore gaztearen ametsa, horretan "ahalegintzea" behintzat. Saiakera horretan kontzertuak eskaintzen ditu eta abestiak sortzen ere ari da, gitarraren eta pianoaren laguntzaz. Aitortu du unean unekoa bizitzea atsegin duen arren, etorkizunari ere begiratzen diola: "Abestiak sortzen eta zuzenekoak eskaintzen jarraitzeko asmoa dut. Egunen batean talde bat osatu eta disko eder bat grabatu eta argitaratzeko esperantzarekin". Eta, uste du Maketa Lehiaketak lagun diezaiokeela bide horretan.

Abeslari gisa egiten ari den ibilbidean, hamar abesti konposatu ditu eta horietatik hiru aurkeztu ditu aipatu lehiaketara: *Maitasunak maitemina dakarren arren*, *Udazkena Gasteizen* eta *Bi ahotsetara*. Lehiaketan parte hartzeko bete beharreko baldintza izan da hautagai bakoitzak hiru abesti aurkeztea. Lehen aurkezpen fase hori gainditu dutenek, ordea, aurkeztutako hiru lanetatik bakarra aukeratu behar izan dute finalistak izateko lehian sartzeko, eta *Bi ahotsetara* aukeratu du herritarrek. "Jatorriz maitasun deklarazio bat izan arren, neure buruaz hitz egiteko aitzakia bat besterik ez da. Abestia nire aurkezpen txartela da". Kantuak sortzea "terapia" dela nabarmendu du: "Ez zait batere erraza egiten sentitzen dudana adieraztea eta musikak horretan laguntzen nau".

Kontatu du aurtengo ediziora ia ehun proposamen aurkeztu direla eta horietatik hogeit hamar besterik ez direla igaro finalistak



Musikatik bizitzea du amets Maialen Aristegi kantautore gazteak. MAIALEN ARISTEGI

izateko fasera; horien artean da Aristegi. Eta lasarteoriatarrek badute herritarra babesteko aukera. Horretarako, www.eitb.eus/eu/gaztea/maketa-lehiaketa/ atarian sartu behar dute, *Bi ahotsetara* abestia bilatu eta bozka eman. Gaur, azaroaren 5a izango da horretarako azken eguna. Epe hori amaituta, finalistak iragarri eta azaroaren 25ean egingo dute finala. Bilboko Kafe Antzokian izango da hitzordu hori. Hala iragarri du

"EZ ZAIT ERRAZA EGITEN SENTITZEN DUDANA ADIERAZTEA; MUSIKAK HORTAN LAGUNTZEN NAU"

musikariak: "Inoiz Bilboko Kafe Antzokian abestea nire ametsetako bat da. Egia bihurtuko balitz, bihotzez eskertuko nuke, baina, gertatzen dena gertatzen dela, oso harro nago honaino heldu izanaz".

Lehiaketaren 30. edizioa

Berezia izaten ari da aurtengo Maketa Lehiaketa, izan ere, 30. urteurrena ospatzen ari da. Horregatik, eta aurreko edizioetan ez bezala, hiru sari banatuko dituzte aurten: Epaimahaiaren saria -5.000 euro eta BBK LIVE jaialdian jotzeko aukera-, Gazte BizHitza saria -entzuleena. 2.500 euro- eta Harrobia Saria -Oso Polita diskoetxeak aukeratutako hautagaiak lau abestiko EP bat grabatzeko aukera-.



Asun Moreno senide eta herritarrez inguratuta, 'Merci Maman' aurkezten. TXINTXARRI

'Merci Maman' liburua aurkeztu du Asun Moreno herritarrek

Depresioak jota dagoen amarekin bizitakoekin hezurmamitu du *Merci Maman* liburua

Txintxarri

Iragan urteko abuztuan kaleratu zuen Asun Moreno lasarteoriatarak *Merci Maman* liburua. Koronabirusak eragotzi zion lanaren aurkezpena lehenago egitea, baina, urtebete eta hiru hilabete beranduago iritsi da horretarako aukera. Bere herrian gainera, Manuel Lekuona Kultur Etxean. Ez da berezko liburu aurkezpen bat izan, elkarrizketa formatua baliatu baitute lanaren berri emateko. Amaia Soroa arduratu da galderak egiteaz, eta, noski, idazlea bera izan du aurrez aurre. Lorez atondutako agertoki goxo bat prestatu dute, Morenoren ama Paquitari liburuko protagonistetako bat-keinu egin nahian seguraski.

Gloria Anzaldúa idazle estatubatuarren hitzak gogora ekarriz hasi du saioa Soroak eta lehenengo galdera zuzendu dio idazleari gero. Galdetu dio

zergatik hasi zen idazten eta berehala jaso du Morenoren erantzuna. Labur azalduz, kontatu dio ama Paquitaren depresioak beragan sortutako sentimenduak kokatzeko hasi zela idazten, terapia gisa. Horren atzetik etorri dira galdera-erantzun gehiago. Kontatu du baita ere familia bereko hiru belaunaldi -Paquita, amona; Asun, alaba eta Andrea, biloba- batzen direla liburuan, eta azpimarra berezia egin dio buruko gaitzen ikustarazteari. Haiei buruz hitz egitea eta estigma kentzea ezinbestekoa dela uste du Morenok.

Liburua idatzi eta argitaratzearena "urte luzeetako lana" izan da, eta hasieran asmo jakinik gabe idatzitako lerroetatik osatu du granate koloreko liburuxka. Senide, gertuko eta herritarrez inguratuta aurkeztu du *Merci Maman*.

Bizitza soziala errekuiperatzeko

Agijupens Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsionisten Elkarteak Urratsez urrats egitasmoa aurkeztu du Biyak Bat egoitzan. Eurak dira sustatzaileak eta herri nahiz auzoetako bizitza soziala berreskuratzea da ekimenaren xede nagusia. Hiru fasetan multzokatutako zenbait jarduera ezberdin egitea planteatu dute; horien artean, talde topaketak.



TXEMA VALLES



Okendo plazako arkupeetan bukatu dute elkarretaratzea. Idatzia bertan irakurri dute. TXINTXARRI

Sare: "Denon ahalegina eta bultzada behar dugu"

Azken Ostirala egin dute Elizatze eta Okendo plazen artean, hilabetero bezala. Sarek eta Etxerateg adostutako idatzia partekatu dute parte hartzaileekin. Urriaren 23ko manifestazioko parte hartzea "oso positiboki" baloratu dute, eta datozen erronketarako laguntza eskatu

Txintxarri

Hilabeteko azken ostiralero bezala, elkartasun ekintza egin dute. 30 bat lagunek osatu dute ohiko ibilbidea, Elizatze eta Okendo plazen artean. Euriagatik, udaletzeko arkupean hartu dute aterpe. Bertan, Lasarte-Oriako Presoen Batzordeko kide batek adierazpen laburra egin du halako mobilizazioen garrantzia nabarmentzeko, eta jarraian, Sarek eta Etxerateg adostutako idatzia edukia partekatu dute.

Joxe Mari Agirretzek laburtu du Etxerateg eta Sarek egindako irakurketaren edukia. Nahiz eta aurrerapausoak ematen ari diren, bi mugimenduek salatu dute "atzerapauso nabarmenak" ere egiten ari direla estatu aparatua. Esandako hiru adibiderek azaldu du. Lehena, Ruben Garate. "Urteak dira sakabanaketa politikaren ondorioz istripuz hil zela eta haren omenez Otxandion margotua zuten horma irudia kentzera behartu dute auzitegiek. Bigarrena, Unai Fano. Hirugarren gradua eskuratu ondoren hamar hilabete zeramatzen kalean eta orain berriro espeteratu dute. Azkena, Mikel Arrieta.

Martuteneko kartzelan gaixo dagoen presoak 2020an bete zituen zigorraren hiru laurdenak eta txosten baten zain dago, bere "gaixotasuna duintasunez artatu ahal izateko". Sareren ustez, adibide horiek erakusten dute "blokeoak hor jarraitzen duela".

Horren aurrean, "oso positiboki" baloratu eta eskertu dute joan den larunbatean, urriak 23, Donostian egindako manifestazioak izandako atxikimendua eta parte hartzea. Baita Lasarte-Orian mobilizazio ekintza horretara deitzeko gauzatutako erlojuen argazkien egitasmoak izandako babesa ere. "Aurrera begira hori da proposatzen duguna, norberak ahalegina egin behar duela bere inguruan, senide eta lagun artean. Planteatzen ari diren helburuak aurrera ateratzeko denon ahalegina behar dugu", gogoratu du Agirretzek.

Hurrengo erronkak Gabonetan aurrera eramango dituzten ekimenak eta 2022ko urtarrilaren 8an Bilbon egingo duten manifestazioa izango dira. "Garai erabakigarriak bizi ditugu eta denon bultzada beharrezkoa da", amaitu du bere adierazpena.



ANTZERKIA **Bete ingoiau. Zutani Teatroa**
azaroak 12, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA **Eneritz Furyak eta Maite Larburu**
azaroak 13, **LARUNBATA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

BINAKAKO BAKARRIZKETA **Luze edo Motz**
azaroak 14, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

HITZALDIA **Txerra Rodriguez. 30 urte mihigintzan**
azaroak 15, **ASTELEHENA**, 19:00 Sutegi **DOAN**

Sarrerak: aldez aurretik salgai usurbilkultura.eus plataforman. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua/ko egoitzan

KONTZERTUA **Ruper Ordorika**
azaroak 19, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi **SARRERAREKIN**

DANTZA **Tio Teronen Semeak, Festamentua**
azaroak 20, **LARUNBATA**, 19:00 Mikel Laboa plazan **DOAN**
(Eguraldi txarra bada frontoian)

KONTZERTUA **Don Inorrez**
azaroak 21, **IGANDEA**, 19:00 Sutegi **SARRERAREKIN**



NOAUA/KO KULTURALDIA 2021

**USURBIL
AZAROA**



noaua



Jakin-min handia piztu du Bizikidetzarako memoria erakusketak; Antonio Mercero gunea txiki geratu da inaugurazioan. TXINTXARRI

Bizikidetzaz hausnartzeko

'Bizikidetzarako memoria' erakusketa osatu du Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak. Jakin-min izugarria piztu du, txiki geratu baita Antonio Mercero gunea inaugurazio ekitaldian. "Ez dugu kontakizun bat eman nahi, hausnarketarako gakoak baizik", azpimarratu du antolatzaileak

Iñigo Gonzalez Sarobe

Kronika honetan ez dugu irekiera ekitaldia kronologikoki kontatuko. Ordena aldatzeko lizentziatxoa hartu dugu, Bizikidetzeta Foroako kideen desio h a u n a b a r m e n t z e k o : "Erakusketak gertatutakoaren egia osoa ezagutarazteko eta ez ahazteko balio izatea gustatuko litzaiguke, gizarteak gertatutakoa ulertzeko, aitortzeko eta memoria kolektibo eta partekatu bat eraikitzeke, belaunaldi berriei transmititu ahalko diena gero". Helburu nagusi horrekin ondu dute Bizikidetzarako memoria erakusketa, hilaren 30era arte Antonio Mercero gunean ikus daitekeena. Astelehenetik ostiralera 17:30etik 20:30era zabalduko dute (astearte eta ostegun goizetan, 11:00etatik 13:00era ere bai), eta 11:00etatik 13:30era larunbatetan.

Azaroaren 2an inauguratu dute, eta jakin-min handia piztu du, txiki geratu baita Antonio Mercero guneko hitzaldi aretoa. Erakundeetako ordezkariak ez ezik –Agustin Valdivia alkatea, Lasarte-Oriako udal korporazioko alderdietako kideak, Jon Gamba Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide eta Memoria zuzendaria eta Gogora institutuko zuzendari Aintzane Ezenarro, besteak beste–, indarkeria euren azalean pairatu duten protagonista zenbait ere bertaratu dira: Josu Elespe, Caty Romero, Pili Kastresana, Begoña Urroz...

**HILAREN 30ERA ARTE
JOAN DAITEZKE
ERAKUSKETARA
HERRITARRAK,
IGANDEETAN SALBU**

Erakusketari buruzko azalpenak foroako hiru kidek eman dituzte: Jexux Artetxe, Rosa Bell Ausin eta Mari Karmen Ormazabal-ek. Horren aurretik, taldeari buruz jardun dira: "Multzo anitza osatu dugu, baina guztiok dugu kezka bera: elkarbizitza eraikitzea, bizilagunon artean".

Lasarte-Orian eta Euskal Herrian bost hamarkadatan zehar motibazio politikoak eragindako indarkeriaren historia bildu dute. "Pandemia tarteko, urtebete baino gehiago behar izan dugu erakusketa osatzeko; tarte horretan, Baketik fundazioa izan dugu bidelagun, uneoro", azaldu dute. Batetik, Euskal Herriko 132 "gertakari garrantzitsu" bildu dituzte, eta bestetik, herrian jazotakoak, 2017. urtean Argitzuz Giza Eskubideen Elkarteak argitaratu zuen *Memoria partekatu baterantz* txostena abiapuntutzat



Bizikidetzeta foroako kideek aurkeztu dute erakusketa. TXINTXARRI

hartuta: "1956tik 2016ra herrian jazotako giza eskubideen urraketak jasotzen ditu dokumentuak; deskribatzen dena ezagutaraztea planteatu genuen, erakusketa baten bidez". Horren barruan, herriko hainbat biktimizekin elkartzeko prozesua hasi zuten, "Ixabelen [Zuaznabar] sukaldean".

Ezagutu, hausnartu eta jardun

Hiru espaziotan banatu dute Bizikidetzarako memoria: erakusketa gunea lehenik, gertatutakoa ezagutzeko; hitzaldi aretoa bigarrenik, hausnartzeko eta elkar entzuteko; eta pasilloa hirugarrenik, jarduteko. Lehenengo espazioan Euskal Herriko 132 gertakari garrantzitsu jaso dituzte panelen bidez, eta zutabe batzuk ere jarri dituzte, indarkeriagatik bizia galdu zuten zortzi lasarteoriatarak gogoratzeko: Begoña Urroz, Antonio Huegun, Jose Herrero, Alejandro Saenz, Mikel Kastresana, Jose Javier Urritegi, Alfonso Morcillo eta Froilan Elespe. Horiez gain, herritarrek ez baina Lasarte-Orian zendutako beste hiru pertsona ere bai: Marcelo Garcandia, Pablo Gude eta Miguel Angel Blanco. "Biktima guztiei egin nahi diegu aitortza, eta era berean, drama hori jasan duten herritar guztiekin enpatizatu".

Metro batzuetara, hausnartzeko eremu bat prestatu du taldeak, hitzaldi aretoan: Lasarte-Orian a z k e n h a m a r k a d e t a n gertatutakoak bildu dituzte, eta ordenagailu batzuk jarri, elkarriketatu dituen 23

**LASARTE-ORIAKO ETA
EUSKAL HERRIKO
INDARKERIAREN
HISTORIA JASO DUTE,
HIRU ESPAZIOTAN**

Hitzaldiak astelehenetan

Elkarrizketatu dituen 23 herritarren lekukotzetan oinarrituta, lau emanaldi antolatu ditu foroak, Antonio Mercero gunean: bi euskaraz, eta bi gaztelaniaz. Bideoak proiektatu eta gero, protagonistek beraiek parte hartuko dute hitzaldietan.

- **Azaroak 8, astelehena, 18:00etan:** *Vidas truncadas.*
- **Azaroak 15, astelehena, 18:00etan:** *Bizitzaren zauriak.*
- **Azaroak 22, astelehena, 18:00etan:** *Vidas bajo amenaza.*
- **Azaroak 29, astelehena, 18:00etan:** *Bizikidetzarako bizipenak eta kontakizunak.*

herritarren lekukotzak ezagut ditzaten ikus-entzuleek. Bidenabar, erakusketaren bideo ofiziala ere ikusi ahalko dute.

Azkenik, pasilloan, jarduteko aukera eman nahi die foroak herritarrei. "Giza eskubideen aurrean konpromisoa har dezaten, taldeko kideon artean adostu dugun akordio etikoak irakurtzeko eta sinatzeko aukera emango diegu, eta baita haien gogoetak liburu zurian idazteko ere".

Herritarren gogoak pizteko

Bizikidetzeta foroako kideek erakusketa antolatu izanaren beste xede "garrantzitsu" bat aipatu dute inaugurazioan: "Antonio Mercero gunea bisitatu eta gero, gustatuko litzaiguke herritarrek gogoak izatea elkarbizitzaren alde urratsak egiteko".



**Azaroaren 16an
TTAKUN KULTUR
ELKARTEAREN EGUNA**
Urteurren ekitaldia
Ttakunenean



**Azaroaren 20an
FESTtakun!**
Pintxo potea, kale animazioa,
dantza, kontzertuak...




**1991
2021**



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

2 uk **54€** urtean ordaindu

guk Euskara eta kultura sustatuko dugu

Errenta aitortpenean **%20ko** kenkaria izango duzu



URTARRILAREN 10a baino lehen bazkide egiten bazara otar baten zozketan sartuko zara!

Izen-abizenak: _____

NAN: _____ **Jaiotze data:** _____


Helbidea: _____ **Herria:** _____

Telefonoak: _____

e-maila: _____

Kontu korrontea (IBAN): _____

Data eta Sinadura



Ttakun Kultur Elkarteak urtean zehar antolatzen dituen ekitaldien eta zozketen berri jaso nahi dut emailez


Bidali postaz edo utzi bulegoan:
Geltoki kalea 4, behea 20160 LASARTE-ORIA

On-line egiteko:
www.txintxarri.eus/bazkidetu



Ttakun kultur elkartearen izenean emandako datuak bazkideen kudeaketarako erabiliko direla adierazten dizugu: kudeaketa administratiboa, bazkideen onuren aplikazioa, zozketen partehartzea eta harremanetarako informazioa. Emandako datuak bazkideez irauten duen bitartean edota betebeharrak irauten duen bitartean gordeko dira. Datu hauek ez dira hirugarren pertsonari eskainiko betebeharrak legala dagoen kasuetan ezik. Honetaz gain, edozein momentutan egikaritu daitezke sarbide, zuzenketa, ezeztatze, oposizio, mugatze eta eramangarritasun eskubidea, TTAKUN KULTUR ELKARTERA idatzi bat zuzenduz NAN agiriarekin aurkeztuz, edo posta elektronikoki bat bidaliz datubabesa@ttakun.eus helbidera.

Informazioa eta bazkideztak: ttakun@ttakun.eus • Geltoki kalea 4, Lasarte-Oria • 943-37 14 48



Hamarrekoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden aldeak. Hamar dira guztira.



Ui! Txoria!


Seiko sudoku hau TXORIA hitza osatzen duten hizkiez egina da. Hutsuneak bete behar dituzu, eta horretarako, kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu

behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

DOMINOAN


Ba al dakizu zer jaten duen aldameneko txoriak? Bada, euliak, eltxoak, ehunzangoak, zizareak, kakalardoak eta sitsak, eta sei elementu horiekin domino segida hau osatu beharko duzu.

	X		T	O
	T			A
		T		A R
X				
		I		X
	R		I O	



Itzala

Horra non pausatu den txoritxo! Aurki ezazu irudi honen itzal zuzena.




Mezua

Erabili marrazkitxoen alfabetoa eta txoritxoak zer dioen jakingo duzu. Esaera ezagun bat da.



ALFABETOA



pareak bai!

Lotu irudi bakoitzari bere izena. Kontuan hartu modu bat baino gehiago izan dezakegula gauzak izendatzeko, eta hemen ageri dena ez dela beharbada zuk ezagutzen duzuna.



MITXOLETA



LIKANTROPOA

ERPINA




SAIA

TXERMENA




TXOLARREA



KUKUSOA



AHO-GINGILA




Handitik txikira

Ordena itzazu flamenko berezi hauek handitik txikira, hau da, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 6.

Gainera margotu egin behar dituzu, honela:

- 1.- Isats-hegalak gorritz eta gorputza arrosaz.
- 2.- Isats-hegalak laranja eta gorputza gorritz.
- 3.- Isats-hegalak laranja eta gorputza urdinez.
- 4.- Isats-hegalak horiz eta gorputza berdez.
- 5.- Isats-hegalak berdez eta gorputza grisez.
- 6.- Isats-hegalak arrosaz eta gorputza zuriz.



Orbela

Bost txatal hauetatik bi irudi nagusitik hartuta daude eta beste hirurak engainariak dira. Bereiz itzazu.

Saleta, 20 urtez azpiko Europako txapelketan

Alex Saleta Atorrasagasti Espainiako selekzioarekin lehiatuko da Coimbran (Portugal) jokatu den txapelketan. Lehen aurkari Alemania izango du, azaroaren 7an. Herritarra Aviron Bayonnais 'espoir' taldean denboraldi hasiera bikaina egiten ari da

Txintxarri

Aviron Bayonnais taldean jokatu ari den Alex Saleta Atorrasagasti herritarrak 20 urtez azpiko Errugbi XVeko Europako Txapelketa jokatu du azaroaren 7tik 13ra. Espainiako selekzioak Coimbran (Portugal) antolatutako txapelketan parte hartzeko deia egin dio herritarrari. Denboraldi hasiera bikainaren fruitu da.

20 urtez azpiko taldeak azaroaren 7an jokatu du bere lehen partida. Aurkaria Alemania izango da. Arerio hori gaituz gero, Herbehereen eta Belgikaren arteko partidako irabazlearen aurka jokatu dute finalerdia.

Prestaketa gutxi

Deialdiak ez du herritarra ezustean hartu. Selektioak txapelketa prestatzeko irailean Valladoliden egindako egonaldian parte hartu zuen Beltzak RTko



Alex Saleta Atorrasagasti, SU Agen taldearen aurkako partidaren irudi bat. AVIRON BAYONNAIS/MICHEL ETCHÉLÉ

harrobiko kirolariak eta bertan egindako lana kontuan izan dute selekzioak kideak talde osatzeko.

Erronka handia izango da txapelketa. Hitzordu garrantzitsua prestatzeko azaroaren 2an, Valladoliden bildu zen 20 urtez

azpiko taldea. Aurretik, pandemia dela eta, aipatu konzentrazio bakarra egin ahal izan dute.

Hala ere, selekzioak prestatzaileek uste osoa dute taldeko muinean. Jokalari gehienek 18 urtez azpiko mailako

taldean bat egin zuten eta 2019. urtean Kaliningradon (Errusia) jokatu den Europako Txapelketan zilarrezko domina eskuratu zuten. Jokalari horietako bat du Alex Saleta herritarra.

Ligako bigarren

Denboraldi hasiera bikainaren fruitu da Saletaren deialdia. Aviron Bayonnais *espoir* edo etorkizuneko taldean lan ederra egiten ari da herritarra. Jokatu den Ligako sei jardunaldietan zelaian izan da –lau partidatan titular modura jokatu du– eta neurketetan erabakigarria da bere lana.

Baionako taldea bere multzoko bigarren postuan da ligan eta denboraldiko lehen partida bakarrik galdu du Stade Rochelais taldearen aurka, 30-22.

Taldearen egoera ezin hobeari erakusle argia da, Saletaz gain, Baionako taldeko beste zazpi jokalarik izango direla 20 urtez azpiko Europako Txapelketan lehiatzen.

Garaipen berria

Urriaren 31n, ligako seigarren jardunaldia jokatu zuen Aviron Bayonnaise taldeak Christian Belascain estadioan, eta zelaira irten zen hamabostekoko kide izan zen Saleta.

SU Agen izan zuen aurrez aurre eta partida gogorra jokatu zuen talde urdinak euripean. Hainbat jokalarik min hartu zuten;

atsedenaldira 0-13 iritsi ziren eta bigarren zatian, Baionako jokalariek barruan zuten guztia atera zuten, 27-16 gailentzeko.

Lehen zatian, talde urdina joko motzean saiatu zen aurkaria gainditzen. Ageneko jokalariek, ordea, defentsa hertsia egin zuten eta Avironek ezin izan zuen entsegu lerrora hurbildu, ezta atera jaurti ere. Aurkariak, berriz, Baionako taldearen hutsak baliatu zituen markagailuan aurrea hartzeko. Lehenik, hirugarren minutuan, entsegu eta transformazioa eginez, eta ostean, bi zigor ostiko sartzea lortu zuen.

Atsedendialdiaren ostean, ordea, guztia aldatu zen. Aviron Bayonnais taldeko jokalariek itzulia eman zioten partidari, pixkanaka, eta 14-13 jarri ziren aurretik. Agenek ez zuen amore eman eta zigor ostiko baten bitartez aurre hartu zuen, berriro ere, 14-16. Baionako taldeak ez zion neurketari ihes egiten utzi. Defentsa lan ederra eginez, Ageneko taldeak ezin izan zuen bere eremutik atera. Erasoan, berriz, bi zigor ostiko eta entsegu eta transformazio bat lortu zituzten urdinek. Era horretara, garaipena etxean geratu zen.

Zelaian ez ezik, harmailetan ere izan zen Lasarte-Oriako ordezkartza. Izan ere, Beltzak RTko kideak aritu ziren herritarra eta bere taldeari animoak ematen.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GORENGOEN MAILA

Ostadar SKT - Billabona KE

Larunbata, 17:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONALEN 1. MAILA

Atotxa River FC - Ostadar SKT

Larunbata, 19:30. Herrera, Donostian.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Billabona KE - Ostadar SKT

Larunbata, 18:15. Arratzain, Villabonan.

JUBENILEN 1. MAILA

Ostadar SKT A - Zarautz KE A

Larunbata, 15:30. Michelin kirol gunean.

Ostadar SKT B - Internacional CD B

Igandea, 16:45. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO KADETE MAILA

Ostadar SKT - Hernani CD

Igandea, 15:00. Michelin kirol gunean.

KADETEEN 1. MAILA

Ostadar SKT B - Orioko FT B

Larunbata, 13:00. Michelin kirol gunean.

Antigua-Luberri KE A - Ostadar SKT A

Igandea, 09:00. Berio, Donostian.

Texas Lasartearra CF - Vasconia CD

Igandea, 13:10. Michelin kirol gunean.

OHOREZKO INFANTIL MAILA

Beasain SD - Ostadar SKT

Larunbata, 13:30. Igartza, Beasainen.

INFANTIL TXIKI

Ostadar SKT - Urnieta KE

Larunbata, 11:20. Michelin kirol gunean.

INFANTILEN 1. MAILA

Ostadar SKT A - Usurbil Udarregi FT A

Larunbata, 09:45. Michelin kirol gunean.

Euskalduna - Ostadar SKT B

Larunbata, 10:15. Ubitarte, Andoainen.

Urnieta KE - Texas Lasartearra

Larunbata, 12:30. Urnietan.

ARETO FUTBOLA

1. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Oiarzun KE

Ostirala, 20:50. Maialen Chourraut kirol.

2. MAILA

Makax Gorka Margoak - Eguzki ISU

Igandea, 10:00. J.A. Gaska kir., Donostian.

GAZTEEN MAILA

Zarautz KE A - Eguzki AF 2KN

Larunbata, 11:00. Aritzatalde kir., Zarautzen.

INFANTILAK

Eguzki AF - Arizmendi Eskoriatza

Igandea, 09:30. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOA

SENIOR 1. MAILA

Oiarso SKT - Ostadar SKT

Larunbata, 17:00. Don Bosco, Erreterian.

SENIOR 2. MAILA

Ostadar SKT - Tecnun

Larunbata, 16:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR 3. MAILA

Zurrut SK - Ostadar SKT

Larunbata, 19:30. Allurralde kir., Andoain.

JUNIOR ERRENDIMENDU

Ostadar SKT - Bergara Soralue KE

Larunbata, 11:30. Maialen Chourraut kirol.

KADETE ERRENDIMENDU

GSR Ointxe! - Ostadar SKT

Larunbata, 12:00. Iturripe kir., Arrasaten.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - SaskiAxular

Larunbata, 09:45. Maialen Chourraut kirol.

INFANTIL HAUNDI PARTAIDETZA

Osrudia Haundi - Ostadar SKT

Larunbata, 10:45. Majori kir., Ordizian.

INFANTIL TXIKI PARTAIDETZA

Aresko Txiki - Ostadar SKT

Larunbata, 09:30. Ibarra kir., Aretxabaletan.

ERRUGBIA

20 URTEZ AZPIKO SELEKZIOA

Espainia - Alemania

Igandea, 12:00. Coimbra, Portugalen.

OHOREZKO B MAILA

Universitario Bilbao Rugby -

Gesalaga Okelan Zarautz RT

Larunbata, 16:00. El Fango, Bilbon.

EUSKAL LIGA 2. MAILA

Eibar RT - Gesalaga Okelan Zarautz

Igandea, 11:30. Unbe, Eibarren.

18 URTEZ AZPIKOKA

Iruñea RC UNAV - Itsasmendi Gesalaga

Ostirala, 11:15. Michelin kirol gunean.

PILOTA

JUBENILAK 2. MAILA

Intza KE - Aloña Mendi

Larunbata, 11:15. Michelin kirol gunean.

KADETEAK 2. MAILA

LAPKE - Intza KE

Ostirala, 18:15. Joxe Miel Barandiaran pilotalekua, Lazkaon.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA 2. MAILA

Cocinas Dueto Jatorride - Ostadar SKT

Igandea, 12:00. Aranalde kir., Gasteizen.

JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Lizardi

Larunbata, 18:00. Maialen Chourraut kir.

IGERIKETA

NEGUKO LIGA

Buruntzaldea IKTKo senior, junior eta

infantil mailako igerilariek Neguko

Ligako 2. jardunaldia jokatu dute

Larunbata, 16:00. Hernanin.

SELEKZIO ARTEKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo Nora Imazek

Selekzio Arteko Euskal Herriko

Txapelketan parte hartuko du.

Igandea, Iruñean.

LASTERKETAK

DONOSTIAKO KROSA

65. Donostiako Nazioarteko Krosa

lehiatuko da. Ostadar Atletismo

saileko kideak eta hainbat herritarrek

parte hartuko dute. Igandea, 10:00. Hipodromoa, Donostian.

Ostadar Atletismo Eskola, berriro lehian

Urte eta erdiko etenaren ostean, infantil eta alebin mailako atletak eskolarteko txapelketa jokatu dute, urriaren 30ean, Hernanin; azaroaren 7an, berriz, Donostiako Nazioarteko Krosean lehiatuko dira eta benjamin mailako haurrek debuta egingo dute

Txintxarri

Ostadar Atletismo Eskolako gaztetxo eta haurrak lehian hasi dira. Urriaren 30ean, denboraldiko lehen txapelketa izan zuten Hernanin eta azaroaren 7an, Donostiako Nazioarteko Krosean lehiatuko dira.

Euriari aurre egin behar izan zioten infantil eta alebin mailako gazteek. Infantilek 220 m. hesi lasterketa eta disko zein xabalina jaurtiketa lehiatu zituzten; txikienek, berriz, 150 m. hesiak, pisudun pilota jaurtiketa eta disko jaurtiketa.

Amaia Andres Berakoetxea taldeko arduraduna pozarren dago gazteek egindako lehiaketarekin eta eskolarteko gaztetxoak berriro lehiatzeagatik: "Proba teknikoak izan arren, guztiek ederki egin zuten lan. Beste entrenamendu bat bezala izan da. Baina garrantzitsuena guztiok batera berriro kirola egitea da".

Atletismoa ezagutzen

Eskolako arduradunak azaldu modura, Ostadar Atletismo Eskola irailaren 7an hasi arren, bi hilabete hauetan ez dute denbora askorik izan alde tekniko lantzeko.

"Guztia zerotik hasi behar izan dugu. Urte eta erdi gogorra izan dugu eskolarteko mailan, etenak izan dira, ez dute lehiaketarik



Ostadar Atletismo Eskolako infantilak, urriaren 30eko proba amaitzean. OSTADAR ATLETISMO

egin... Horregatik, lehen gauza umeak mimatzea izan da, euren alderdi emozionalari garrantzia ematea. Batzuek, gainera, berrogeialdiak egin behar izan dituzte. Horregatik, alde teknikoak lantzen duela gutxi hasi gara. Ez da asko izan, baina esango nuke kirol elkarte guztietan ere berdin egongo direla", adierazi du Ostadarreko arduradunak.

Denboraldiko lehen lehiaketek, gainera, garrantzi handirik ez dutela azaldu du: "Urduritasuna kentzeko izan ohi da. Entrenamenduetan ikasi dutena, praktikan jartzeko gai diren ikusten dugu. Lehiaketan nola moldatzen diren ere ikusteko

balio du [epaileak, dortsalak...]. Eta euren talde kideekin entrenamendua ez den beste giro batean egoten dira".

Hala ere, eskolarteko mailan bi multzo nagusi berezi daitezkeela nabarmendu du: "Benjamin, alebin eta infantilen lehen urtean jokoaren bitartez atletismoa ezagutzen dute. Hala ere, lantzen diren espezialitate guztietan gai izan behar dira. Infantilen bigarren urtean, berriz, Euskadiko txapelketak lehiatzeko aukera dago eta serioago entrenatzen dute. Gainera, bakoitzaren proba zein izan daitekeen ikusi eta horretan lan egiten dugu".

Lehen pausoak

Aurten bederatz bi benjaminen, 35 alebinen eta hamasei infantilek osatzen dute taldea. Hori dela eta, Ostadar Atletismoa saila pozarren dagoela adierazi du: "Ikasturte hasieran ezusteko ederra hartu genuen izena emate kopurua ikustean. Pozik gaude gazte berri asko ditugulako eta taldeari sendotasuna ematen diolako horrek".

Infantil mailako taldea izan ezik, gainerako kideek atletismoan lehen urratsak emango dituztela azaldu du: "Gazte batzuei iazko martxoaren 13an kirol garapena eten zitzaizkien. Pena da; sasoiaren zuzen, baina ezin gara horregatik kekatu. Gainerako kideek ez dute lehiarik egin oraindik, ez dakite zer den atletismoan lehiatzea".

Hori dela eta, taldeko kide guztietan urduritasuna eta ziurgabetasuna nabari direla aipatu du eskolako arduradunak: "Inoiz atletismorik egin ez dutenen kasuan, dena berria da. Ilusioa eta ziurgabetasuna dute; ez dakite zer den. Bestetik, lehiatu direnek ere bere urduritasuna eta ziurgabetasuna dute. Etena luzea izan da, ez dute lehiaketarik jokatu...".

Hori gairatzen gurasoen eta Ostadarren laguntza dutela nabarmendu du: "Hori guztia kudeatzen ari gara, gurasoen laguntzarekin. Nabarmenezkoa da oso ondo ari dira lanean gurekin batera. Eurak gabe hau ez litzateke posible izango. Elkarrekin ere babes handia eman digu eta eskertzekoa da".

Krosa

Taldearen hurrengo hitzordua, azaroaren 7an izango da Donostiako Hipodromoan.

Latorre, ederki Master Kopan

Erreteria Atletiko taldeak II. Espainiako Master Taldeen Kopa Mistoan parte hartu zuen, urriaren 31n, Durangon. Erreterriako taldean, Jose Ramon Latorre eta Ander Iriondo herritarrek aritzen dira lehian; txapelketan, ordea, Latorrek bakarrik hartu zuen parte.

Abiadurako bi probatan egin zuen lasterka Latorrek, 100 m. eta 200 m. probak eta bere harritxoak jarri zuen taldea bosgarren izan zedin. Bi lehiaketetan lehen hiruen artean sailkatu zen herritarra. 100 m. proban hirugarren iritsi zen helmugara, 11,97 eta 200 m. lasterketan, berriz, bigarren postua eskuratu zuen 24,16 denbora eginez.

Ostadarrek alebin eta infantil mailako ordezkaritza izango du Donostiako Nazioarteko Krosean eta benjaminen debuta izango dela ere aurreratu du atletismo eskolako arduradunak: "Benjamin mailako atletak ez dute Gipuzkoa mailan lehiaketarik, Donostialdean bakarrik aritu daitezke, beraz, bertan jokatu dute euren lehen lasterketa".

Hori dela eta, txikiak harrituta daudela nabarmendu du talde urdin-beltzeko prestatzaileak: "Non egin behar dugu lasterka?" galdetzen dute. Guk 'zaldiek lasterka egiten duten Hipodromoan' erantzuten diegu eta aho bete hortz geratzen dira. Batzuek ez dakite krosa zer den ere".



TXINTXARRI

San Silvestrea, prestatzen

Bi urteko etenaren ostean, Lasarte-Oriako San Silvestre lasterketako antolatzaileek sare sozialetan jakitera eman dute abenduaren 31n herri lasterketa egingo dela. Antolatzaileek lanean dira hitzordua prestatzeko eta hurrengo asteetan izen ematean, ordutegien, oparien eta hainbat sorpresaren berri ere emango dutela aurreratu dute.

Minbiziaren aurka martxan

Urriaren 31n, ia 4.000 pertsonen parte hartu zuten Donostiako erdialdeko kaleak bete zituen Katxalin Martxa Solidarioan. Hainbat herritarrek egin zuten bat bularreko minbizi pairatzen duten pertsonen aldeko marea arrosarekin. Horren adibide, ondoko argazkian ikusi daitekeen modura, Ostadar Ipar Martxa taldea.



OSTADAR IPAR MARTXA

Ostadarrek eta Texasek Usurbil gainditu dute

Urriaren 30ean, gol festa ugari izan dira Michelin kirol gunean. Ostadar SKTk 8-0 irabazi du, Erregional 1. Mailan; kadete mailako Texasek, berriz, 7-0. Infantilen derbian ere, gol ugari sartu dituzte: 4-1. Texasek eskuratu ditu puntuak

Txintxarri

Ostadar SKTren Erregionalen 1. Mailako taldeak denboraldi hasiera ederra egiten ari da. Ez du partidarik galdu; bost partida irabazi eta bakarria berdindu du Mikel Zarraga-ren taldeak.

Zenbaki horiei esker, bere multzoko buru da, hamasei punturekin, eta tartea ireki du gainerako taldeekin; bigarren sailkatua irabazi berri duen Usurbil FT da, bederatzita punturekin.

Urriaren 30ean jokaturako jardunaldian, aurreratu bezala, Ostadarrek bere multzoko bigarren sailkatuaren aurka neurtu zituen indarrak: Usurbil FT. Michelin kirol gunean zeuden ikusleek gol festa ikusi ahal izan zuten. Urdin-beltzek partidako lehen zatian jokia kontrolatu zuten eta aukerak sortu arren, 25. minutura arte ez zen lehen gola iritsi.

Erantzun modura, Usurbilgo jokalariek etxeko taldearen nagusitasuna puskatzen saiatu ziren. Ahaleginek ez zuten saririk izan, ordea. Ostadarrek, berriz, bigarren golaren bila jarraitzen zuten eta zazpi minutura lortu zuten markagailuan aldea handitzea. Aurkariak, orduan, amore eman zuten eta etxeko taldeak atera



Ostadarren eta Usurbilen jokalariek, baloia lehiatzen. TXINTXARRI

iristeko erraztasun handiagoa izan zuten. Azkenean, 8-0 gailendu zen talde urdin-beltza.

Texasek bi garaipen

Egun horretan bertan, baino bost ordu lehenago, Usurbil FTren Kadeteen 1. Mailako B taldeak jaso zuten gol zaparrada. Erruduna Texas Lasartearra izan zen. Iker Moreno-ren taldeak hiru puntuak eskuratu zituen aurkaria 7-0 garaitu ostean.

Infantil mailan, berriz, Texas eta Ostadarren arteko derbia ikusi ahal izan zen. Talde txuridinak 4-1 irabazi zuten.

Patxi Castorri omenaldia

Ostadar SKT-k futbol saileko zuzendaritzako kide izan zen Patxi Castro-ri omenaldi xumea egingo dio, azaroaren 6an, 17:20ak aldera Michelin kirol gunean. Castrok elkartearen eta herrigintzaren alde egin zuten lana eskertuko da ekimenean. Kirol elkartek herritarrek gonbidatzen ditu bertaratzera.

denboraldiko zerrendara; ez du partidarik galdu eta bere multzoko sailkapeneko buru da.

Intzako bikotea nagusi izan zen partida hasieratik eta Tolosako Otsabio 3-22 irabazi zuten.

Jubenilen mailako bikoteak, berriz, Ataunen sufritu zuten. Intza mendean hartu zuten hasieratik aurkariak eta Haritza Diaz de Gereñuk eta Pedro Eloseguik ezer gutxi egin ahal izan zuten arerioen erasoak geratzeko.

Intzako bikoteek askotariko emaitzak lortu dituzte

3. Mailako Nagusiak garaipena erdietsi du; jubenilek ezin izan dituzte Atauneko aurkariak geratu

Txintxarri

Intza Pilota Elkarteko pilotariak Gipuzkoako Binakako Txapelketan buru belarri ari dira lehian. Herriko taldeko hiru bikoteek jardunaldia izan arren, 2. Mailako Kadeteek ez

zuten partidarik jokatu. Azkoitiko bikotea ez zen aurkeztu, pilotarietako batek arazoak zituelako.

3. Mailako senior bikoteak –Haritz Urkia eta Mikel Elola– beste garaipen bat gehitu zuten



Eguzki ISU Leihoak-ek lan gogorra egin du Miren Tabernako jokariak geratzeko. TXINTXARRI

Eguzki ISU Leihoak taldeak, ezin etxean garaipena lortu

Miren Taberna OKE 2-7 gailendu da Maialen Chourraut kiroldegian jokaturako 2. Mailako neurketan

Txintxarri

Eguzki ISU Leihoak taldeak denboraldiko bosgarren jardunaldia jokatu zuen Miren Taberna OKEren aurka, urriaren 29an, Maialen Chourraut kiroldegian.

Partida zaila zuen aurretik etxeko taldeak. Oiarzungo taldea 2. Mailako lehen postuetan egoteko lehian ari da; aipatu jardunaldiko partida baino lehen, bi garaipen eta bi berdinketa zituen eskuan. Lasarte-Oriako taldeak denboraldia Eskoriatzaren aurkako garaipenarekin hasi bazuen ere, gainerako partidetan ez du punturik eskuratu.

Partida hasi eta ederki borrokatu zuten Jon Arozena-k zuzentzen duten taldeak baloia jabetza izateko.

Hala ere, Miren Tabernako aurkariak euren balio erakutsi eta erasora jo zuten. Ez zen erraza izan aurkariaren saiakerak

geratzea Eguzki ISU Leihoak taldearentzat.

Nahiz eta arerioa gailendu, etxeko taldeak ez zuten amore eman eta bi aukera baliatu zituen Oiarzungo taldearen defentsa eta atea zulatzeko. Neurketa Miren Taberna OKEren aldeko 2-7ko markagailuarekin amaitu zen.

Emaitza ezberdinak

Eguzki Areto Futboleko gainerako taldeek askotariko emaitzak erdietsi zituzten.

1. Mailako Eguzki Arkupe Rehabilitaciones taldek garaipen berria erdietsi zuten CD Mondrate 2-4 mendean hartuta. Gazteen Mailako taldeak, puntu bat gehiago lortu zuten Lauburu KE Ibarren aurka husna berdindu ostean. Eta Infantil mailako gaztetxoek 3-5 galdu zuten. Aurkaria Antiguoko donostiarra izan zen.

Asier Pozok Eibar Txirrindulari taldean jarraituko du

Eibar Txirrindularitza taldeak jakitera eman duenez, Asier Pozo herritarra beste urte batez izango da eurekin lanean. Txirrindulari taldeak aurreko denboraldian "erlojuaren aurkako frogetarako duen gaitasuna" erakutsi duela nabarmendu dute Pozoren jarraipena iragartzerakoan. Herritarrek iaz egin zuten 23 urtez azpiko mailara jauzia.




Asier Pozo, lehian. ERIZ FRAILE

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Manuel eta Maite
Nire guraso maiteei euren eztei eguneko 49. urteurrenean zoriona opa diet. Gehiago ere ospa ditzagula. Maite zaituztet. Zuen semea.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 5	GANDARIAS-URIBE	EGUNEKO FARMAZIAK: 09:00-22:00
LARUNBATA, 6	DE ORUE	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
IGANDEA, 7	DE ORUE	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
ASTELEHENA, 8	GIL	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
ASTEARTEA, 9	DE MIGUEL	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
AZTEAZKENA, 10	LASA	GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 15 29
OSTEGUNA, 11	GIL	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
A. Etxebarria, 'Cuevas': Andrea kalea 48, Hernani. 943-55 17 93

OHARRA

Biyak Bat elkarteko loteria salgai

Biyak Bat elkarteak Gabonetako loteria jarri du salgai. Elkarteko zuzendaritzak jakitera eman duenez, bulegoan eskuratu daiteke astelehenetik ostiralera, 10:30etik 12:30era. Bazkideek azaroaren 30era arte izango dute elkarteko loteria erosteko.

ESKUTITZA

Materializazio - Desmaterializazio**IÑAKI LOPEZ DE LUZURIAGA**

Energia ez da galtzen, transformatu baizik. Kontua da energia horrekin zer egiten duzun. Gaurkotasan handia du gaiak, materialki gauzek gero eta urrunago ematen baitute, eta birtuala dugu trukean, edo hodeia. Oraingoan, bi hanka baditugu eta hankak lurrean jarrita. Erakunde publikoek ere hori sustatzen dute: bi hanketan joan, edo bizikleta, eta saihestu autoa, hartu garraio publikoa! Lasarten, aspaldiko kontua, badugu gorrotomaitasun harreman hori, tartean Euskotren eta TSST-Lurraldebus direla.

Itxura ederrekoak jarri dituzte autobusak, hibridoak, bing eta boing, pantailak, ahots batek parada iragartzen, kolore berde-urdin polita naturarekin sinbiosi ederrean (inspirational!). Aurreko larunbatean konpromiso bat nuen Donostian, garraio publikoa erabili nuen. Erosotasunean pentsatu nuen orduan, aparkalekuan pentsatu beharrik ere ez, merke... Ederki. Goizaren erdian, Lasartera atzera busa hartzera Askatasun etorbidera; ohi bezala ordu laurdeneroko maiztasuna zuelakoan. Bada, ez. Zer aurkitu eta autobusak ordu erdiro: ordu laurdeneroko autobusarenak egin zuen, autobus hori DESMATERIALIZATU egin zen. Pentsatzen zenuen Londresko metroaren moduko garraiabideen maiztasunera hurbiltzen ari ginela? (Koitadua...)

Pertsona ilara luzea osatzen joan zen, jasagarria, baina gero eta gutxiago, ordu erdiroko Lurraldebus autobusa ere ez baitzen heltzen. Hasi ziren hasperenak. Autobus materialaren energia transferitzen hasi zen, orduan, jendearen arimetara, haserre bihurturik. Oraindik hor dabil energia hori, desmaterializatuta (eta sakabanatuta, beharbada), irakin den ura bezala, erraustegiko kea bezala. Hala ere, errezeloa dut autobus hori ez dela guztiz desmaterializatu, sakela batzuetan ere ari dela materializatzen, Donostiako Metroan zementua botatzen duten konpainia zulgileetan, satorren uxagarri eta alkateen xarmagarri.

Bitartean, jasagarritasunaren diskurtsoaren erdian harrapatu, Lasarten berdin jarraitzen dugu haur ordutegia duen Amarako azken 10:13ko Euskotrenarekin, eta desmaterializatzen ari den autobus zerbitzuarekin (itxura ederra, hori bai). Oinez gehiago ibiltzeko amarru subliminala, beharbada (Lasartera Oinez)? Ala lau gupilen aldekoa?

1968ko urtarrilaren 18a**SABIN TELLERIA ZUAZNABAR-EN ILOBA**

Txikia nintzela sarritan joan ohi ginen goizpazan familiakoak Donostiara. Portuan txalupak ikusi, alde zaharreko taberna batean tortilla pintxoak jan eta, hutsik egin gabe, gure betiko errutina osatzeko, Konstituzio enparantzako izkinan zegoen denda txiki hartan kakahuete poltsa txiki bat erosten nuen. Gogoan dut oraindik dendatxo hartako usaina eta kakahuete erre berrien poltsatxo marroia eskuetan hartzean sentitzen nuen berotasunak sortzen zidan zirrara atsegina. Denda kanpoaldean, enparantzako izkina horretan, gurasoak zain-zain izaten nituen noski; begiradak goruntz bideratuta beti, noiz-noizka keinuren bat egiten eta beraien artean berriketan. Nik, egia esan, momentuan arreta handiegirik ez nuen jartzen, izan ere, poltsatxo marroi barruan ezkututzen zen altxor txikia eskuetan izanda gainontzekoa bigarren plano batean geratzen zen niretzat.

Etxerakoan alde zaharreko gozotegi dotore baten parean egin ohi genuen azken geldialdia. Nik beti egiten nuen saiakera, baina "ama" galdetzen hasterako "ez, ez... badakizu hemen ezetz" jasotzen nuen erantzuna bizkor. Gurasoak gozotegi alboko atarira begira geratzen ziren. Nik, ordea, ez nion ate hari berezia zen ezer ez ikusten, gozotegiko erakuslehoan zeuden txokolate eta gozoak ikusita, atari horrek izan zezakeen interesa ulertzetik ez zegoen. "Hau izango da", esaten zuen amak; "hori bestela", erantzun aitzak, beste atari bat seinatlatuz. Denbora luzez pentsatu izan nuen, gozotegi hura apainegia eta garestiegia zelako ez genuela inoiz bazkal ondorenerako postreterik erosten.

Urteetara -ez gutxi- jakin nuen egia osoa; eta urteetan atzera egin behar izan nuen egia horren nondik norakoa kokatzeko; 1968ko urtarrilaren 18ra, hain zuzen. EGiko talde batek, 1967ko ekintza arrakastatsua errepikatze aldera, San Sebastian

bezperan, gauerdian, agintari frankisten aurrean, egun Konstituzio enparantza deitzen diogun plazara airetik ikurrin mordoa botatzeko ekintza antolatuta zuten; ikurrin zaparrada, alegia, Donostiako martxa hastearekin batera. Igeltsero plantak egin zituzten antza gazteek, alde zaharreko hainbat eraikinetan sartu eta teilatuetara igotzeko. Aurreko urtean ez bezala, huts egin zuen 1968ko saiakerak. Niri hain erakargarria iruditzen zitzaidan gozotegiko eraikin horretako atezainak lehendabizi, eta bizilagunek ondoren emandako abisuek zapuztu omen zuten ekintza. Gazteak, noski, atxilotu egin zituzten.

Eta han nire harridura, gazte horietako bat osaba izan zela jakin nuen momentuan. Eta ondoren etorri ziren amonak eta amak erdizka emandako azalpenak eta Jaeneko espetxera seiscientos hartan egindako bidaien urrutiko oroitzapenak. Familiako pasarte garrantzitsua izan arren, ez da etxean sarri hitz egin gai horren inguruan, osaba berak ere apaltasun osoz hitz egin ohi izan du beti. Gure herriko historian isildutako istorio bat gehiago izango da hau ere akaso.

Eta oraindik, bere horretan jarraitzen du nire harridurak. Bai, nire osaba bera. Mitxeleneke sagarrondoan zaindari fin izan den bera, urtero poltsaka hur oparitzen ziguna, Michelingo azken lan egunaren ondoren, eguneroko poltsa eta buzoa etxeko atariaren aurrean erre zuena, zapatarien pareko betaurrekoak jantzi eta txamarretako kremailerak konpontzen zituena, tinbrea jo eta, giltza soinuaren ondoren, atea irribarretsu ireki ohi zuena, poltsa eta gerrikoetan hainbat eta hainbat zulo egindakoa, gabonetan nire eskuinaldean eseri ohi zena eta bere etorriarekin hainbeste barre algara eragin dizkiguna.

Joan den ostiralean ehortzi genuen, bere ikurrina alboan zuela. Osaba eta ikurrina, ikurrina eta osaba. Ordutik, beraz, esan genezake zalantzarik gabe "ikurrina bat badela zeruan" eta zaindari onena izango duela ondoan, osaba izan delako -guretzat behintzat- "bat bakarria munduan".

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Marina D'Or urbanizazioko (Castellon) etxebizitza bat saldu nahi dut, hondartzako lehen lerroan kokatua: 68 metro ditu, hamalau metroko terraza, bi gela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Lasarte-Oriako edo inguruko etxebizitza batengatik ere trukatu genuke. Harremanetarako zenbakia: 675 70 39 06.

ERRENTAN EMAN

Etxebizitza bateko logela alokatzen dut, areto amankomunak erabiltzeko eskubidearekin. Harremanetarako zenbakia: 605 70 57 89.

ESKAITZA

Herriko ile apaindegi eta estetika zentro batek manikura eta pedikura egiteko langile bat behar du. Harremanetarako zenbakia: 647 82 13 61.

ESKARIA

Etxeko lanak egiteko edo haurrak zein adinekoak zaintzeko prest nago, goizetan, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetarako zenbakia: 671 27 79 05.

Haur hezkuntzako ikasketak amaitu berri ditut eta irailetik aurrera haurrak zaintzeko prest nago. Harremanetarako zenbakia: 616 26 11 96.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketari... Esperientzia handikoa eta profesionala garbiketari. Harremanetarako zenbakia: 673 55 62 89.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Internamodura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza

egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia: 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduak zaindu edo garbiketari lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 634 27 81 98.

Ikasturte berri honetan haurrak zainduko nituzke, eskolara sartu aurretik.

Harremanetarako zenbakia: 630 68 27 16.

SALEROSKETA

SALDU

Paseorako bi txirrinda saltzen ditut, ehun eurotan biak. Harremanetarako zenbakia: 670 60 74 95.

Bizikletari lotzeko erremolke doblea salgai. Interesik bazenu, deitu lasai. Inongo konpromisorik gabe probatu daiteke. Eskiatzeko eta gerrian lotuta ibiltzeko ere balio du. Gurpilak eta eskiak barne. Oso ondo zaindua. 300 euro. 670 20 78 14, Amaia.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20€ (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ARGAZKI LEHIAKETA

Udako argazki lehiaketako sariduna

TXINTXARRI aldizkariak antolatutako udako argazki lehiaketako saria, Aldikako produktu otar ederra, Jose Manuel Bernardoren eskuetan dago.


45 argazki jaso genituen eta irailaren 19ra arte www.txintxarri.eus webgunean irakurleek euren bozkak emateko aukera izan zuten. Aurten, bozka ematerako garaian, gorabehera batzuk izan dira eta irabazlea erabakitzeko modua aldatzea erabaki dugu.

Epea amaitzean, boz emate ezegokia sumatu genuen hainbat argazkietan. Ondorioz, adituen epaimahaia osatzea erabaki genuen. Aitzol Etxegoein Andoño, Idoia Telleria Maritxalar eta Isaac Farre Rico argazkilariek epaitu zituzten irudiak, eta Jose Manuel Bernardoren *La Kontxa hondartza* argazkia izan zen garailea.



Jose Manuel Bernardo, saskiarekin. TXINTXARRI

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maitane Rebe, Julen Basterra,
Nerea Segura, Lierni Rekondo
eta Aizpea Amas.

Banatzaleak:

Igone Mendizabal,
Lide Hidalgo, Uxue Odriozola,
Julene Iraola, Egoitz Epelde,
Sergio Hernandez, Ander Hazas
eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.500 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Erakusketa. Bizikidetzarako memoria para convivir erakusketa antolatu du Lasarte-Oriako Bizikidetzeta Foroak. Euskal Herriko eta Lasarte-Oriako indarkeriaren historia biltzen du, eta hilabete osoan zehar ikusgai egongo da. Ekimenaren xedeak ugariak dira: herriko biktimak "bere pluraltasunean" aintzat hartzea, terrorismoaren eta indarkeriaren ondorio sozial eta pertsonal larriak ezagutaraztea eta onartzea, eragindako kaltearen aitortzearen oinarritutako memoria kolektiboa eraikitzea, eta herritarrek konpromisoa hartzea giza eskubideen urraketen aurrean. Bizitzarako eskubideari buruzko hitzaldi batzuk ere antolatu dituzte. Hilaren 8, 15, 22 eta 29an izango dira, 18:00etatik 20:00etara, Mercero aretoan. *Vidas truncadas. Víctimas del terrorismo y de actos policiales* izeneko solasaldia izango da lehena. Azaroaren 30era arte, 17:30etik 20:30era (larunbatetan, 11:00etatik 13:30era), Antonio Mercero aretoan.

OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA Zinema

Azaroko lehenengo saioa egingo du Okendo Zinema Taldeak: *Maixabel* filma proiektatuko du. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 20:30ean.

LARUNBATA 6

LASARTE-ORIA Antzerkia

Azken balea lana taularatuko du Tomaxen abenturak konpainiak. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

IGANDEA 7

LASARTE-ORIA Zinema

Oltxiak filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Maixabel filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTEAZKENA 10

LASARTE-ORIA Literatura

Kontukantoi-ko Bea Egizabal eta Cesar Marcos-ek istorio harrigarriak

kontatuko dizkiete Lasarte-Oriako gaztetxoei. Edukiera mugatua. Manuel Lekuona Kultur Etxeko udal liburutegian, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Opera

Piotr Ilich Tchaikovsky konpositorearen *El cascanueces* opera egokitu eta taularatu du Royal Ballet konpainia ospetsuak. Emanaldi hori proiektatuko dute Lasarte-Orian. Sarrerek 7,5 eta bederatzitauro artean balio dute. Kultur etxea, 19:00etan.

OSTIRALA 12

LASARTE-ORIA Antzerkia

Altsasu antzezlanaholtzaratuko du La Dramatica Errante konpainiak. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 20:00etan.

LARUNBATA 13

LASARTE-ORIA Emanaldia

Semblante Andaluz elkarteak eta Euskal Herriko Andaluziar Etxeen Elkarteak (FARAE) saioa antolatu dute. Tabita taldeak Niña Pastori musikariaren pieza ezagunenak taularatuko ditu. Sarrera doakoa da. Kultur etxea, 18:00etan.

IGANDEA 14

LASARTE-ORIA Zinema

Bella y el circo filma proiektatuko dute. Sarrerek 3,80 euro balio dute. Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Érase una vez en Euskadi filma proiektatuko dute. Sarrerek 5,50 euro balio dute. Kultur etxea, 19:30ean.

ASTELEHENA 15

LASARTE-ORIA Tailerra

Hiri hondakinak birziklatzeaz kontzientziatzeko, *Birziklatzearen erronka* kanpaina abiatu dute udalak eta Artelatz enpresak. Tailerrak egingo dituzte herritarrekin. Lehenengoa euskaraz izango da. Antonio Mercero gunea, 18:30ean.

ASTEAZKENA 17

LASARTE-ORIA Literatura

Kontukantoi-ko Bea Egizabal eta Cesar Marcos-ek istorio harrigarriak kontatuko dizkiete Lasarte-Oriako gaztetxoei. Edukiera mugatua izango du. Manuel Lekuona Kultur Etxeko udal liburutegian, 18:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Maixabel
Ostirala 5: 20:30.
Igandea 7: 19:30.

Oltxiak

Igandea 7: 17:00.

Bella y el circo

Igandea 14: 17:00.

Érase una vez en Euskadi

Igandea 14: 19:30.

ANDOAIN

BASTERO

Érase una vez en Euskadi

Larunbata 6: 19:30.
Igandea 7: 19:30.

Tom eta Jerry

Igandea 31: 12:00.

Bebe jefazo: negocios de familia

Larunbata 30: 17:00.
Igandea 31: 17:00.

Entre rosas

Larunbata 30: 19:30, 22:00.
Igandea 31: 19:30.
Astelehena 1: 19:30, 22:00.

HERNANI

BITERI

Maixabel

Ostirala 5: 22:30.
Larunbata 6: 19:30.

Érase una vez en Euskadi

Igandea 7: 19:30.

Zutik

Larunbata 6: 16:30.

USURBIL

URBIL

El lobo y el león

Ostirala 5: 16:10, 18:40.

Tom eta Jerry

Larunbata 6: 16:10, 18:40.

Bebe jefazo: negocios de familia

Larunbata 30: 17:00.
Igandea 31: 17:00.

El último duelo

Ostirala 5: 18:25, 21:50.

Larunbata 6: 18:25, 21:50.
Igandea 6: 18:25, 21:50.

Érase una vez en Euskadi

Ostirala 5: 15:50.

Larunbata 6:

15:50.

Igandea 7:

15:50.

Eternals

Ostirala 5: 15:45, 17:00, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:30, 21:45, 22:45.

Larunbata 6:

15:45, 17:00, 18:15, 18:45, 19:15, 19:45, 20:30, 21:45, 22:45.

El lobo y el león

Ostirala 5: 16:10, 18:40.

Larunbata 6:

16:10, 18:40.

Igandea 7:

16:10, 18:40.

El último duelo

Ostirala 5: 18:25, 21:50.

Halloween Kills

Ostirala 5: 22:15.

Larunbata 6: 22:15.
Igandea 7: 22:15.

La familia Adams 2

Ostirala 5: 15:50, 17:10.

Larunbata 6:

15:50, 17:10.

Igandea 7:

15:50, 17:10.

Ron da error

Ostirala 5: 17:05.

Larunbata 6:

17:05.

Igandea 7:

17:05.

Sin tiempo para morir

Ostirala 5: 21:10.

Larunbata 6:

21:10.

Igandea 7:

21:10.

Venom: Habrá matanza

Ostirala 5: 16:15, 19:35, 22:00.

Larunbata 6:

16:15, 19:35, 22:00.

Igandea 7:

16:15, 19:35, 22:00.



LABURPENA

Maixabel

Zuzendaria: Iciar Bollain. **Gidoia:** Iciar Bollain eta Isa Campo. **Argazkia:** Javier Aguirre Erauso. **Musika:** Alberto Iglesias. **Ekoizleak:** Kowalski Films, Feel good Media, ETB, Movistar+, TVE. **Herr:** Espainia (2021). **Iraupena:** 115 minutu. **Generoa:** Drama. **Aktoreak:** Blanca Portillo, Luis Tosar, Urko Olazabal, María Cerezuola, Arantxa Aranguren, Mikel Bustamante, Bruno Sevilla, Jone Laspiur, David Blanka.

Gertakari batetik abiatuta

Maixabel Lasa-k bere senar Juan Maria Jauregui galdu zuen 2000. urtean, ETAK hilda. Gertakari hori jazo eta hainbat urtera, eskaera bat jasotzen du. Senarra hil zuen taldeko kide batek –Arabako Langraiz Okako espetxean dago preso– berarekin elkartzeko eskaria egiten dio. Lasak zalantza asko eta min izugarria izan arren, onartu egiten du

presoaren eskakizuna, eta aipatu espetxean elkartzen dira.

Elkar ulertzeko bide baten lehen urratsa izango da topaketa hori. Minaz, galerez eta beldurraz mintzatzen da filma, baina baita zauriak leuntzeaz eta bigarren aukeraz ere. Elkar ulertzeko egiten duten ahaleginaren berri izango dute ikus-entzuleek.

Ez daudenak gogoratu dituzte Illarraltzuetan

Azaroaren lehenean, Domu Santu Egunean, lorez bete dute Lasarte-Oriako hilerria herritarrek, baita aurreko egunetan ere, asteburuan. Ohiturari jarraiki, dagoeneko bizi ez diren senide eta lagunak gogoan dituztela adierazi nahi izan diete

Txintxarri

Azaroaren lehena iristearekin batera, lorez bete ohi dira hilerriak, eta Illarraltzuetakoa ez da salbuespena. Urriaren 30ean eta 31n joan zirenei beste asko batu zitzaizkien Domu Santu Egunean, azaroaren lean.

Urteko gainerako egunetan baino bisita gehiago jasotzen dituzte hilerriek Domu Santu Egunaren bueltan. Hildako ahaideak zein lagunak omendu eta gogoratzeko data seinalatua da. Hala ere, asteburua tarteko, urriaren 30ean edo 31n bertaratzea nahiago izan zuen askok. Hori horrela, Illarraltzuetako hilarri gehienak

askotariko koloretako larrosez, klabeledinez, koroz...beteta zeuden eguerdia baino lehen.

Bideetan eta harri artean zebiltzan hainbat herritar. Hilarriak garbitu, txukundu eta lore sorta feskoekin apaintzen zebiltzan gehienak. Piztutako kandlek, berriz, beste batzuk ere bertan izanak zirela erakusten zuten. Guztiek gogoan dituztela adierazi nahi izan zieten jada ez daudenei.

Oinez joan ziren batzuk, autoan beste batzuk, eta izan zen Manttangorri hiribusa erabili zuenik ere, zerbitzu berezia eman baitzuen urriaren 31n eta azaroaren lean.



Herritar ugari bertaratu dira Illarraltzuetako hilerria, Domu Santu Egunean bertan edo aurreko asteburuan. TXINTXARRI



Poltsa



Motxila poltsa



Aluminiozko botila



eskatu saskiak
eta eman hauspoa euskarari
Nafarroa hego eta erdialdean



errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria

